

## JUANTXO-TXIKIREKIN JOLASTEN (22)

*Juantxo-txikik jolas-gurea dauka?* Jolasean lagundu egiozu eta berarekin jolastu zaitez. Jolasean erakutsi. Zergaitik, ez...?

—Tira, tira, umekeririk esan barik...

—Oso ederto emongo zenduke, emon be.

*Eguna igaroteko* familiarekin doazenean, zenbait gurasok uste dabe, umeak jolastu bear dobela, baiña eurak ez. Eurak serio-serio ibilli, beruna baiño astunago, gau-illuna baiño illunago. Argirik, ez. Alaitasuna sortuko ba'da, umetxoen aldetik sortu bearko da; guraso orreik ez dabe ezertxo be egingo alaitze aldera.

Ez, guraso, ori ez. Ez litzake izan bear zure jokabidea. Zeuk alaitu bear dozuz zeure seme-alabak. Lagundu, beintzat, alaitzen eta ez "pasota" baten antzera egon euren aurrean. Eta, jolasean erakutsi.

—Nik ez dakit oraingo jolas barririk.

—Zaarrak irakatsi edo barriak ikasten alegindu, eurari irakasteko. Ez dozu bereala topatuko ori baiño bide errezagorik zeure Juantxo-txikiren lagun izateko.

*Jolasa tranparik gabe.* Jolasean tranparik ez dala egin bear irakatsi umetxoari eta jokoaren aginduak bete zeuk lenengo eta gero ondoren Juantxo-txikiri beteten irakatsi.

Galtzen be ikasi bear da jokoan gabiltzanean. Irabazleak bere saria jasoten dau eta galtzaillea zoriondu egizu garbi jokatu daualako.

*Kanta-kantari.* Ori be jolasa dozu eta oso jaku gogoko erritarroi. "Txapel bat, euskaldun bat; txapel bi, euskaldun bi; iru txapel, abes-batza edo orfeoia".

Kantatzea jolas pozgarria da. Eta zuk kanta zaarrak eta barriak ikasi seme-alabatxoeri irakasteko. Orfeoi bat etxean sortzea ez da esku guztietan dagoen gauza erreza; baiña, etxeok alkarrekin abestea, zein dan zoragarria...!

\*

*Musika eta abestiak* ba-dauke gizona eziten laguntzeko aala. Ezi-bide bat dogu. Gaurko egunez edozein musika-mota eskuetan daukagu. Musika oneik bereizten erakutsi Juantxo-txikiri. Gustoa eta belarriak eziten lagundu, aal ba'dozu. Zeure seme-alabak ume-umetatik Euskalerriko musika ederrean murgildu egizuz.

ARRINDA'tar ANES

